Iragarkiak

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

4976

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 27koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegian bideratutako 464/09 zenbakidun prozedura laburrean alderdi bezala ager daitezen, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoko zuzendariak 2009ko uztailaren 27ko Ebazpena eman duela non xedatu den Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiari bidal dakiola honako prozedurari buruzko espediente administratiboa:

464/09 zenbakidun prozedura laburtua: Antonio Angel Treku Esnaola jaunak jarri duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2009ko apirilaren 25eko Aginduaren aurka doa, agindu haren bidez esleitzen baitziren Ekonomia, Politika eta Lehiakortasunaren ezagutza arloko lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketara deitu zuen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduaren bidez deitutako lanpostuak.

Prozedura horrek eragina izan dezake lehen esandako lanpostuak betetzeko lehiaketaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako espedienteetan interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiaren aurrean lehenago esandako prozeduretako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2.– Hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 27a.

Funtzio Publikoko zuzendaria,
M.ª ELENA PÉREZ BARREDO.

Anuncios

Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

4976

RESOLUCIÓN de 27 de julio de 2009, de la Directora de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el procedimiento abreviado 464/09 seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace público que la Directora de Función Pública, con fecha de 27 de julio de 2009 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz el expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento abreviado 464/09: recurso contencioso-administrativo interpuesto por Antonio Angel Treku Esnaola contra la Orden de 25 de abril de 2009, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública por la que se adjudican los puestos de trabajo convocados mediante Orden de 28 de enero de 2008, de convocatoria de concurso específico para la provisión de puestos de trabajo pertenecientes al dominio de conocimiento de Economía, Política y Competitividad.

Este procedimiento puede afectar a la resolución del concurso para la provisión de puestos de trabajo del concurso anteriormente referido.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998, de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en los referidos expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 2009.

La Directora de Función Pública,
M.ª ELENA PÉREZ BARREDO.